



Parlamento de Navarra
Nafarroako Parlamentua

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko urtarrilaren 18an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Kontu-hartzailletza eta Gai Ekonomikoetarako Zerbitzuko jarduneko buruak, araudi indardunari jarraituz, txosten bat egin du, Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko langile funtzionarioen eta kontratudunen ordainsariei buruzkoa.

Nafarroako Parlamentuaren Erregelamenduaren 37. artikuluan eta Legebiltzarreko Langileen Estatutuan ezarritakoari jarraikiz, ERABAKI DA:

1. Ezartzea ezen, 2021eko urtarrilaren 1etik aurrerako eraginez, Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko langile funtzionarioen eta kontratudunen ordainsariek ehuneko 0,9ko gehikuntza orokorra izanen dutela, hori baita Estatuko legediak sektore publikoaren zerbitzuko langileentzat ezarritako portzentajea.

2. Onestea maila bakoitzaren hasierako soldatak 2021. urterako. Honako hauek dituzte urteko zenbatekoak:

<u>Sailkapen-maila</u>	<u>Urteko zenbatekoa</u>
A	27.682,20 euro
B	23.288,16 euro
C	19.318,46 euro
D	16.824,78 euro
E	14.799,26 euro.

3. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean eta webgune ofizialean argitara dadin agintzea.

4. Erabaki hau jakinaraztea Prentsa, Argitalpen eta Protokolo Zerbitzuko buruari eta Kontu-hartzailletza eta Gai Ekonomikoetarako Zerbitzuko buruari.

Iruñean, 2021eko urtarrilaren 18an

LEHENDAKARIA

Unai Hualde Iglesias

Prentsa, Argitalpen eta Protokolo Zerbitzuko burua eta Kontu-hartzailletza eta Gai Ekonomikoetarako Zerbitzuko burua



Parlamento de Navarra
Nafarroako Parlamentua

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko urtarrilaren 18an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Kontu-hartzailtza eta Gai Ekonomikoetarako Zerbitzuko jarduneko buruak txosten bat egin du Nafarroako Parlamentuko behin-behineko langileek 2021. urtean jasoko dituzten ordainsariei buruz.

Nafarroako Parlamentuaren Erregelamenduaren 37. artikuluan eta Nafarroako Parlamentuko Langileen Estatutuan ezarritakoari jarraikiz, ERABAKI DA:

1. Ezartzea, 2021eko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin, honako hauek izanen direla Nafarroako Parlamentuko behin-behineko langileen urteko ordainsari gordinak:

- Lehendakaritzako Kabineteko burua: 55.440,70 euro.
- Lehendakaritzako idazkaria: 41.704,60 euro.
- Mahaiko kideen idazkaria: 33.745,32 euro.
- Talde parlamentarioen laguntzaileak: 33.745,32 euro.

2. Talde parlamentarioen laguntzaileei eta Mahaiko kideen idazkariari aplikatzea 2012ko abenduaren 17ko Mahaiaren Erabakiaren bidez zerbitzu-aitorpenari buruz onetsitako irizpideak.

3. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean eta webgune ofizialean argitara dadin agintzea.

4. Erabaki hau jakinaraztea Prentsa, Argitalpen eta Protokolo Zerbitzuko buruari eta Kontu-hartzailtza eta Gai Ekonomikoetarako Zerbitzuko buruari.

Iruñean, 2021eko urtarrilaren 18an

LEHENDAKARIA



Unai Hualde Iglesias

Prentsa, Argitalpen eta Protokolo Zerbitzuko burua eta Kontu-hartzailtza eta Gai Ekonomikoetarako Zerbitzuko burua